

# txintxarri



## Jaiak ate joka dira

2017ko San Pedro jaietan egingo diren ekintzak aurkeztu dituzte. / 2

TXINTXARRI

## Pasioari aitortza

Okendo Zinema Taldeak Auzolan saria jaso du Ostadar SKT-ren eskutik / 6-7

Herriko leku izenen jatorriak ezagutzeko ibilaldi gidatuak egin dituzte Aste Berdearen barruan / 5

Benjamin eta alebin mailako bederatzi taldek jokatuko dute Jose Martijaren II. omenezkoa, bihar / 10

## EPA LASARTE HHI

2016-2017 ikasturtea

**MATRIKULA EPEA ZABALIK**  
Ekainaren 15etik 30era

- Lehen eta bigarren hezkuntza arautuak (DBH/ESO)
- Erdi eta Goi zikloko Sarbide Proben prestaketa
- Gaztelania atzerritarrentzat



Ordutegia:  
11:00-13:00  
(anbulategi gainean)

Tel. 943 37 64 43 / 943 36 66 08 • Beko kalea bidea 1, 3 • Lasarte-Oria • www.epalasarate.es

Josue  
Igeltseritza

606 37 21 05

Atallu pol. atallu, 28  
USURBIL

josueigeltseritza@euskalnet.net

Igeltseritza orokorra

Fatxaden estaldurak  
Estalkien berriztatzeak  
Barruko berrikuntzak  
Gremioen koordinaketa





Ekainaren 28an izango da herriko festen txupinazioa. TXINTXARRI

# San Pedro jaietako txupinazioa, lehertze

Aurtengo jaietako programazioa plazaratu dute Tximistarri parkean. Udaletik, herritar guztiak barneratuko dituzten ekintzak eskaini nahi izan dituztela esan du Txus Alonso zinegotziak. Ekainaren 16an hasiko dira ekintzak eta uztailaren 1ean amaitu.

## Lorena Lujanbio

Asteazkenean izan zen 2017ko sanpedroetan egongo diren jardueren aurkezpena. Tximistarreta parkean elkartu ziren festetan parte hartuko duten hainbat elkarteren kideak, eta datorren astean hasiko diren ekintzen laburpen bat egin zuten.

Txus Alonsok, udalaren izenean, programa ofizialaren irakurketa egin zuen. Azpimarratu zuen, aurten, lasarte-oriatarren parte hartzea inoiz baina handiagoa izango dela: "Ekintza berezietan gain, hamalau elkarterek aurkeztu dituzten ekintzak barneratuko dira". Programari dagokionez, aurten, iaz bezala, festen aurreko egunetan egingo diren ekintzak ekainaren 16an hasiko dira. "Aurreko urteetan izandako arrakastagatik mantenduko ditugu Biyak bat helduen egoitzako mahai-joko txapelketak, Vespa eta Lambretta motoen kontzentrazioa Okendo plazan,

Erketz EDT taldearen emanaldiak, Alboka abesbatzaren saioa eta Udal Musika Eskolako kontzertua".

Horiek festen aurreko egunei dagokionez eta 23an, San Juan gauean, ohiko sua egingo da Andatza plazan, Erketz EDT-ko kideen laguntzarekin.

Programako eskema iazko berbera izango dela adierazi du Alonsok. Berbenak, Isla eta Jaizkibel plazatan; kontzertu nagusiak, Okendo plazan; eta haurrentzako parkeak, Andatza plazan.

Egitarauaren errebasoan, ekintza berezi batzuk nabarmendu ditu, berrikuntzak izango direlako. Alde batetik, haurren txupinazioaren ondoren, umeen-

## HERRIKO 14 ELKARTEK HARTUKO DUTE PARTE AURTENGO JAIETAKO PROGRAMA OROKORREAN

tzako animazioa izango da: *Tomazen abenturak*, Festara taldearen eskutik, Okendon. Bestetik, *Busti Blai* ekintzarekin batera, uraz gozatzen jarraitzeko, Atsokabarren ur-txirristra handia jarriko dute. Azkenik, Txirigotak itzuliko dira Lasarte-Oriara.

Ohiko txupinazioa, hilaren 28an izango da, 19:00etan, eta pregoia Semblante Andaluz elkarteak emango du, horietxek direlako omenduak aurtengo jaietan. Udaletxeko balkoitik emango dute jaien hasiera ofiziala, eta ondoren, Golden Apple Quartet taldeak girotuko du plaza. Okendon izango dira baita ere Zikiro Afaria (Ttakun eta Jalgin egongo dira sarrerak salgai) eta Sorginjaien txupinazioa, 21:30ean. Ondoren, Zapparra eta Skakeo taldeen kontzertuak antolatu dituzte.

San Pedro egunean, Ttiriki-Ttarrakako trikitalariek diana joko dute herriko kaleetan

barrena, eta, ondoren, Extremadurako danbolin-jotzaileek. 11:30ean pilota-partidak (Villa Mirentxuko trinketea) eta herri kirolak (Elizatzte plazan) antolatu dituzte; Maika Ariztegi eta Iruñe Izkuere aizkolariak arituko dira.

Gauetz, 22:00etan, bertso festa egingo dute Manuel Lekuona kulturetxean, Patxi Etxeberriari eskerrak emateko.

Ekainaren 30ean, gaupasa baino lehenago, 20:15ean, *freestyle* akrobazia erakustaldia egongo da Andatza plazan. 21:30ean, Okendo plazan, herri afaria prestatuko dute, sorginjaien eskutik. Afalostean, gauerdian, Ze Esatek taldeak joko du.

Larunbatean Efecto Pasillo entzuteko aukera egongo da (gauerdian Okendon), eta Go!azen taldeko bi aktore etorriko dira herrira (20:00etan Isla plazan).

Lasarte-Oriako boluntarioak izango dira buruhandiak eta zezensuzkoa bideratuko dituztenak kaleetan zehar.

Aurrekontuari dagokionez, delegazioen diru-laguntza eta hitzarmenekin, guztira 153.977,30 eurokoa izan da aurten.

Sasoeta Sasoian elkarteak lehen aldiz parte hartu du programan. Elkarteko kide batek esan zuenez, lehenengo urtea izanik, gogotsu dira festetarako; sanpedroak eta jendea Sasoeta auzora gerturatzea dute helburu. "Horretarako, txokolatada bat eta auzoa girotuko duen disko-festa xume bat" antolatu dugu, eta Sasoeta auzoko talde jator batek egingo du dantza".

Naiara Mujikak, Ttakun elkarteko Kultura eta Jaietako arduradunak elkarteko programa azaldu zuen: "Jai giroa aprobetxatuz, euskal kultura sustatzeko eta euskaraz ondo pasatzeko asmoz ekintzak antolatu ditugu". Herritar guztiei irekiak dauden ekintzak izango dira: ekainaren 28an, Patxintxi sarien banaketa egingo dute haurren txupinazioa amaitutakoan. Ondoren, haurren *makarronada* Atsokabarren, eta *Bota ura* ekintza. Astezkenean bertan, 16:30ean aterako da Oriatik Sorgin Dantza, eta, eguna borobiltzeko, Okendon, 21:30ean, Zikiro Afaria egingo dute. 29an, kantu dantza jira antolatu dute, eta herriko sagardotegietako sagardoa dastatzeko aukera egongo da.



Udaletxean izan zen kartelaren aurkezpena.

## Arrutiren kartela, festen ispilua

Guztira, hemeretzi lan aurkeztu dira herriko festak iragarriko dituen kartel lehiaketan. Epaimahaikideek eta sanpedrojaiak@lasarteoriasarean.eu helbidera bidalitako aukeraketen emaitza izan da Unai Arrutik sinatzen duen kartela. Egilearen esanetan, afizan sanpedroekin zer ikusia duten elementu guztiak batzen saiatu da, edonork aurki dezan jaiak esan nahi duten hori kartelean. Arrutik 20 urte ditu, eta oraindik diseinu ikasketak egiten badabil ere, hiru kartel desberdin aurkeztu ditu aurtengo lehiaketara.



# Andaluziako jantzi eta doinuak, Atsobakarren

Lasarte-Oriako Semblante Andaluz elkarteak XXIV. Rocioko erromeria ospatuko du larunbatean eta igandean, Atsobakar auzoan. Musika emanaldi asko, dantzaldiak, otorduak eta beste zenbait ekintzaz gozatuko dute parte hartzaileek

## Maddi Noriega

Andaluziako giroak jantziko du Lasarte-Oria asteburuan. Herrialdeko ohitura eta usadioei jarraikiz, XXIV. Rocioko erromeria ospatuko dute Semblante Andaluz elkarteak kideek. Zenbait ekintza herrian barrena egingo badituzte ere, Atsobakar auzoa izango da partaideen elkargune nagusia.

Jantzi eta jaki tipikoak, askotariko musika eta dantza emanaldiak, eta, beste zenbait ekintza antolatu dituzte larunbaterako eta iganderako. Larunbat eguerdian, erromeriaren hasierarekin batera lehertuko da festa.

Asteburua aitzakiatzat hartuta, herritarrei gonbita luzatu nahi die Semblante Andaluzek. Horrela, elkartearen aurtengo XXV. urteurrenaren parte izan daitezen, deia luzatu diete lasarteoriatarrei, Atsobakarrera gerturatu, eta, ekintzetan parte har dezaten.

Aurreko urteen antzera, asteburu osoko festa izango da Rocioko erromeria; goiz eta arratsalde askotariko ekintzak izango dira herritarren gozamenarako, eta, Lasarte-Oriako taldeekin batera, eskualdeko beste haibat ere izango dira gurean.



Bi eguneko festa antolatu du Semblante Andaluzek astebururako. TXINTXARRI

## Egitaraua

### Larunbata

- **12:00:** Erromeriaren hasiera.
- **12:30-13:30:** Zero Sette akordeoi taldea, Semblante Andaluz eta Zuenela elkarteak zumba taldea.
- **14:30:** Herri bazkaria (kaldereta).
- **14:30-19:30:** Semblante Rociero, Concha Rociera, Aljarafe, Xumela eta Alboka abesbatzak.
- **19:30-20:30:** Ainara eta Amaya Gonzalez dantza eskolen emanaldiak. Ondoren, herri dantzaldia.

### Igandea

- **12:00:** Semblante Rocieroren meza rozieroa.
- **13:00:** Ama Birjinaren irteera Atsobakar parkerantz.
- **14:30:** Herri bazkaria (paella).
- **16:30-20:00:** Semblante Andaluz, Embrujo, Aljarafe, Triana eta Concha Rociera taldeak.
- **20:00:** Herri dantzaldia.
- **20:30:** Ama Birjinari agurra eta festa amaiera.



NEURE KABUZ

GORKA LASA

## TRANSMISIOA

Gure ondoko baserriak lauhun urte ditu. Inguruko baserriarrek oso baliabide gutxirekin eraikitako etxebizitza, zeinek mendetan zutik tinko dirauen, ekaitzei, elurteei eta haizeteei aurre eginez. Baserrian Inaxio bizi da bakarrik, 80 urteko agurea. Bertan jaiotako, hazi eta bizi dena. Bera hirugarren belaunaldia da baserrian, aitona eta aita ere bertan jaiotakoak baitzuten; bere seme-alabak, berriz, ospitalean jaiotakoak zirenen, orain kalean bizi direnak, bilobekin batera.

Azken aldi honetan, ospitalean etxean baino denbora gehiago ematen du gizarajoak. Diabetesa dela-eta ezkerreko zangoa moztu behar izan diote, belaunetik gora. Baina Inaxioren kezka nagusia ez da bizitzear geratzen zaiona gurgil-aulki bati lotua egon beharra, baizik eta ezingo dela baserrian bakarrik bizi eta etxeko ateak itxi beharko dituela.

Baserria hutsa geratuko da, ez baitago atzetik jarraipenik emango dion belaunaldirik. 400 urteko pasarte, istorio eta kontuak bere baitan geratuko dira preso. Inaxio baserriari lotua bizi izan da, baserriatik eta baserriarok; baserriak eman dio dena; hotz zuenean aterpe, gose zenean jaten, eta atsekabeen babes. Gizaldiz gizaldi, esku esku pasatu den oinordekotzari iritsi zaio, iada, amaiera.

Mendeetako lotura hautsiko da, ama-lurrarekiko errespetua lehenetsi duen ereduaren azken katebegia apurtuko da, belaunaldiz belaunaldi era naturalean egin den transmisioa galduko da. Hizkuntzaren transmisioa, kultura, kirola, ohiturak, bizi izateko modu bat ... Eta gu, 6 hilabete ere ez dituen mugikor zaharra eskutan, azken belaunaldiko Smartphone bat erosteko irrikaz.

## 2016-2017 ikasurteko balorazioa egingo du Sortuk ostegunean

Datorren asteko ostegunean, ekainaren 15ean, ikasurte amaierako batzar irekia egingo du Lasarte-Oriako Sortuk, Xirimiri Elkarteak.

Bi gai landuko dituzte; batetik, 2016-2017 ikasurtean egin denaren azalpena eta balorazioa egingo dute bertaratutako kideek. Halaber, lan talde berrien

aurkezpena ere egingo dute; bestetik, 2017-2018 aldirako helburu nagusiak ere finkatu eta eztabaidatuko dituzte.

Esan bezala, Lasarte-Oriako Xirimiri Elkarteak izango da hitzordua, 19:00etan. 20:00tara bitarte luzatuko da, eta, behin batzarra amaituta, bertaratutako herritarrek pintxo-potera joateko aukera izango dute, elkarrekin, aurtengo ikasurteari behar bezalako amaiera emateko.

**Herriak zure zerbitzuak ezagutzeko nahi duzu?**

...

Txintxarri publizitatea:  
646 82 44 66  
publizitatea@ttakun.eus

zerbitzu mistoak

**MAITE**

ESTETIKA ARETOA

- Makillajea
- Manikura eta pedikura
- Era ezberdinetako depilazioak
- Befileen permanentea eta findatzea
- Ultramorerik gabeko beltzarantzea
- Solariuma
- Aurpegi eta gorputzeko tratamenduak

Uistin Kalea z/g • Tel. 943 37 08 45 • Lasarte-Oria

**ADURIZ DE LASARTE, S.A.**

BERTAN EKOITZITAKO KALITATEZKO PRODUKTUAK

- ✓ Odolkiak
- ✓ Solomo antzutua
- ✓ Etxeko txorizoa
- ✓ Basurde burua
- ✓ Txistorra
- ✓ Solomoa baratxuritan
- ✓ Tripakiak, saltxitxak...
- ✓ Baserri pateak

Loidi Barren kalea 3, 20160 Lasarte-Oria  
Tel: 943 36 12 78 - 943 36 16 55 - 943 36 24 51



# Urratsa da gorputzaren oinazeen neurgailua

Osasuna, Estetika eta Ongizatea jardunaldien barruan, Amaia Olondris podologoak ohartarazi du oinak zaintzearen garrantzia. Oin markak aztertzeo aukera eskaini du hitzaldia eman ostean: "Beste min batzuen jatorria izan daiteke ongi ez zapaltzea"

## Txintxarri

Lehen begiratuan ibilerak gauza asko esaten ditu pertsona bati buruz. Baina, are gehiago adierazten du pertsona horrek lurrean uzten dituen oin markak. Zapaltzeko eran dute jatorria pertsona askok sufrizten dituzten oinazeak. Eta askok irtenbide erraza dute: oinetako egokiak erostea, edo, txarrenean, oinetakoetan barne-zolak erabiltzea. Haatik, gaitz horiei irtenbidea emateko beharrezkoa da oin marken azterketa bat egitea. Horretarako aukera eskaini du Amaia Olondris podologoak, osasunari, estetikari eta ongizateri buruzko jardunaldien barruan.

Asteartean azaldu zuen haren jarduna Olondrisek. Aste osoan beste hainbat profesionalak ere eskaini dituzte hitzaldiak eta beste ekimenak. Hitz Kiribil Logopediak, Noelia Calero eta Haritza osteopatek, Aldatz Hertz Klinikak eta Berta Saez Naturopatak eman dituzte hitzaldiak Villa Mirentxun.

Alfonbra moduko bat erabili du Olondrisek bertartutakoen oinatz markak aztertzeo. Alfonbra hori kable batzuen bitartez ordenagailu batera dago



Ana Diez eta Amaia Olondris, joan den asteartean, Villa Mirentxun. TXINTXARRI

## Azala, gorputzaren ezkutua

Gorputzaren atalik handiena da azala. Babeserako lehen geruza izateaz gainera, beste funtzio asko betetzen ditu: lurrinketa kontrolatzen du, tenperatura egokitzen, eta kanpo substantziak xurgatzen... Ana Diezek, Maiane lurrundendakoak, azaldu ditu azala zaintzearen onurak. "Dena xurgatzen du. Onuragarria dena, baina baita kaltegarria dena". Horregatik, kontsumitzen diren produktuak ongi behatu behar direlakoan dago. "Elikagaiak, ingurugiroak, estresak... denak du eragina gure azalean". Orain, uste du kosmetika produktuekin arreta gehiago jartzen dela: "Markak eta erosten duzun tokiak konfiantza ematen dizu".



Olondris, jardunaldietara bertaratutako bati oin marken azterketa egiten. TXINTXARRI

konektatuta, eta pantailan bertan ikus daitezke pazientearen oin markak. Tresna horren bitartez podologoak jakin dezake nola zapaltzen duen, oinaren zein aldeetan egiten duen indarra ibiltzerakoan.

Oin marka bakoitza bakarra eta berezia baita. "Ez daude bi berdin", esan du podologoak. Pertsona baten bi oinatz markak ere desberdinak izan ohi dira. "Simetrikoak garela uste dugu, baina ez da horrela. Erabat asimetroa da giza gorputza".

## Oinetako egokiak

Normalean, lau zati ditu urrats batek: orpoarekin zapaltzen da lehenengo; oinaren kanpoaldeko aldearekin ondoren; barruko aldeko zatiarekin jarraian; eta, azkenik, aireratu egiten da, aurreko aldearekin lagunduta.

Lau etapa horiek egiteko modua desberdina du pertsona bakoitzak. Olondrisen hitzaldian parte hartu

dutenen oin marken hala erakutsi dute: batzuek behatzekin ez dute indarririk egiten; besteek, oin kurbatua dute, eta batez ere orpoarekin egiten dute indarra zapaltzerakoan.

Oinak behar bezala ez zaintzeak gorputzaren beste atalei eragin diezaioke, beste muskuluak gehiegi kargatu daitezke eta. Askotan nahikoa da barne zolak ezartzea oinkada zuzentzeko. Baina lehenbailehen egitea gomendatu du podologoak: "Arazoa topatu bezain pronto jarri behar da tratamendua. Haurretan 8 eta 13 urte bitartean egin behar da".

Edonola ere, denetan garrantzitsuena da oinetako egokiak aukeratzea. Arreta berezia jarri dio horri Olondrisek: "Hondartzara joateko bainujantzia eramaten dugun bezalaxe, ibiltzeko edo jarduera mota bakoitzerako beharrezkoa da kirola egiteko zapatillak janztea".

## Ikasturteari agur, bertsoan

Ikasturtean irabazitako abilezia erakutsi dute Landaberriko eta Sasoteko lehen hezkuntzako ikasleek, kurtso amaierako ekitaldian. Kanta ezagunen bertsoak abesteaz gainera, DBHn hasiko diren ikasleak aldaketa horri buruz ere abestu dute. Unai Muñoa bertsolari eta irakasleak nabarmendu du gaztetxoek rakutsitako "ausardia" publiko zabalaren aurrean kantatzean.



TXINTXARRI

## Etapari berri baten hasiera

Etapari berri, eta berria irekiko dute udara ostean batxilergoa bukatu berri duten gazteek; asko selektibitateko azterketetan buru-belarri egon dira orain arte. Lasarte-Usurbil BHI institutuko bigarren batxilergoko ikasleek kurtso amaierako ekitaldia egin, eta diplomak banatu zituzten joan den asteko ostiralean. Porrotx pailazoaren bisita jaso zuten, besteak beste. "Ez utzi inoiz ume izateari".



TXINTXARRI



# Lasarte-Oria leku izenez ezagutzen

Hizkuntza ekologia ardatz hartuta, 'Toki izenak ingurunearen aurkibide' hitzaldi gidatuaz gozatu dute lasarteoriarrek. Ekainak 5eko Ingurumenaren Nazioarteko egunarekin bat eginik, Aste Berdearen barruan, hainbat ibilaldi antolatu ditu Lasarte-Oriako Udalak

## Maddi Noriega

Ingurumenaren Eguna ospatu ohi da ekainaren 5ean, nazioartean, eta, horrekin bat eginez, Lasarte-Orian Aste Berdea antolatu dute, hamargarrenez. Horrela, hainbat ibilaldi gidatu antolatu dituzte hilabete honetarako, eta, iragan asteazkenean, lehen hitzaldi ibiltariarekin eman zioten hasiera egitasmoari.

Luis Mari Zaldua ikertzaileak gidatutako *Toki izenak ingurunearen aurkibide* ibilaldia izan da aurtengo edizioko lehena. 09:30ean eta 19:30ean, ikerlariaren ibilaldi gidatuan parte hartu ahal izan zuten herritarrek. Horrela, erdigunetik irten, eta, Brigitarren komentuan egin zuten lehen atsedenaldia. Bertan, ibilaldiaren hari-eramailea izan zen *hizkuntza ekologia* terminoaz mintzatu zitzaien euskara ikasleei. "Ekologia aldetik aberatsa den leku bat, hizkuntzaren aldetik ere aberatsa izango da", azaldu zien Zalduak.

Lehen atsedenaldiaren ostean, Zumaburu auzoko Isla plazara heldu, eta, bertako leku izenaren jatorria azaldu zuen Zalduak. Zumaburu, *zumea* (erdarazko mimbrea) eta *buru* hitzek osatua izan dela aipatu zuen; "zume asko dagoen lekua" esan nahi du Zumaburuk. "Garai batean,



Herrian barrena ibilaldi gidatuan parte hartu zuten lasarteoriarrek. TXINTXARRI

erreka-irila bat zegoen Zumaburu plaza inguruan, eta, hortik jaso du auzoko enparantzak Isla plaza izena". Horrekin batera, Isla plaza ondoko Andapa kalearen jatorriaz ere aritu zen Zaldua. *Antepara* erdarazko hitzetik egokitutako hitza da Andapa, errota bat mugiarazteko egindako uharka", argitu zuen hizlariak.

Zumaburutik ibai ondoko pasealekura lekualdatu ziren ibilaldiko parte hartzaileak, eta han, herriaren izenaren jatorriaren berri eman zien Zalduak; *Latx* eta *arte* izenetatik

sortu da Lasarte. *Latxek* erreka esan nahi du eta *arte*, berriz, tartetik dator; erreka tartea da, beraz, Lasarteren esanahia". Askatasunaren plazara heldu eta bertan egin zuten azken egonaldia. Ibilaldia amaitu aurretik, beste zenbait termino azaldu zituen gonbidatuak.

## Datozen hitzorduak

Ekainaren 14an (10:00etan, euskaraz) eta 15ean (19:30ean, gaztelaniaz), Froilan Elespe parke botanikora egingo dituzte bisitak, Okendo plazatik abiatuta.

## Eskola materialerako laguntzak

2017-18 ikasturtean lehen hezkuntzan eta bigarren hezkuntzan matrikulatutako ikasleentzat dago zuzenduta

### Adrian Garcia

Iaz bezalaxe, hurrengo ikasturterako eskolako materiala erosteko diru laguntzak abiatu ditu Lasarte-Oriako Udalak. Haurrak lehen hezkuntzan eta bigarren hezkuntzan matrikulatu dituzten gurasoek eskatu ditzakete, betiere iaz jasotako errentaren arabera.

Ikasle bakoitzeko 75, 50 edo 25 eurokoak dira laguntzak. Eskolarako materiala ez ezik (arkatzak, boligrafoak, koadernoak, karpetak...), eskolara joateko beharrezkoak diren janztekoak ere erosi ahal izango dituzte diru horrekin (uniformea, betaurrekoak...).

Diru laguntza jaso ahal izateko baldintzei eta prozedurari buruzko eskuorria jasoko dute herritarrek postontzian. Dendetan ere izango dira informazio orriak. Gehienez, urteko 40.000 euroko diru sarrerak eduki beharko dute familiak laguntza horretaz aprobetxatzeko. 20.000 eurotik beherakoak dutenek, 75 euro jasoko dute; 20.000 eta 30.000 euro artekoak dutenek, 50 euro; eta, azkenik, 30.000 eta 40.000 euro artekoak dutenek, 25 euro.

Laguntza jasotzeko, erositako materialaren tiketak aurkeztu beharko dira inprimakiarekin batera. Eskaera sarean egiten bada, eskaneatu egin beharko dira dokumentu horiek.



TXINTXARRI

## Kultur etxea, antzerkiz gainezka

Antzerki obrek ez dute etenik egunotan Manuel Lekuona kultur etxean. Ekainaren 3an, Zabaletako jaiekin bat eginez hasi zen Kukuka Antzerki ta Dantza Eskolaren antzerki hamabostaldia. Orduz geroztik, askotariko obrak ikusteko aukera izaten ari dira lasarteoriarrek. Asteartean, *Ipuin pintzeladak*, *Mimo*, *Txanogorritxuren benetako istorioa* eta *Mimo mimosak* antzezlanak eskaini zituzten.

## Patxintxi sariak 2017

- Nor da zuretzat 65 urtez gorako pertsonarik goxo eta mailagarriena?

-----

- Nola jarri gaitezke berarekin harremanetan? (kontaktua)

-----

Zure izena eta kontaktua: .....

\*Aurkeztu orri hau bete! Nukuneko buegoan!

Itsatsi zure hautagaiaren argazkia

55. Txakun 1961-2016





Joan den larunbateko festan saritutakoek talde argazkia atera zuten ekitaldi bukaeran. TXINTXARRI

# Festa giroan bukatu dute

Ostadar SKT kirol taldearen atalen batean aritzen direnak Michelingo frontoian elkartu ziren joan den larunbatean, 2016/17 denboraldia festa giroan amaitzeko. Axier Arteaga pilotaria eta Okendo Zinema taldea saritu ditu kirol ekarteak.

## Iñigo Gonzalez

Urtero legez, festa erraldoi batekin itxi du denboraldia Ostadar Saiarre Kirol Taldeak. Klubak dituen hamar ataletako partaideak Michelingo frontoian elkartu ziren pasa den larunbatean. Egitaraua, nola ez, kirola eginez ireki zuten hainbat gazte eta helduk: saskibaloia, bola-jokoa, ipar martxa... Gelditu gabe aritu ziren 11:00etatik 12:30era arte.

Michelingo pilotalekuan dena prest zegoen sari banaketarekin hasteko. Aurtengo kirolari onenaren saria Axier Arteaga pilotari profesionalak jaso du. Urte gogoangarria egiten ari da herritar gaztea: promozioko binakakoa (Jon Erasun zizurkildarrarekin bikotea osatu zuten) eta buruz burukoa irabazi ditu. Ondo bidean, udaran orain arteko joko-maila bikaina

erakusten jarraitzeko aukera ugari edukiko ditu Arteaga II.ak.

Auzolan saria, berriz, Okendo Zinema Taldeko kideek irabazi dute aurten. 1980ko hamarkadan hasi ziren lasarteoriatarrei kalitatezko zinema eskaintzen, eta denboraldi batez geldirik egon ostean, berriro bueltatu dira, ideiak eta indarrak berrituta. Aukeraketa tentuz egin, eta, ostiralero-ostiralero, mota guztietako film luzeak proiektatzen dituzte Manuel Lekuona kultur etxean. Juanjo Erauskinek jaso zuten saria talde guztiaren izenean.

**SAIL BAKOITZEKO KIDEEI AITORTZA EGIN DIETE; ETENGABEAK IZAN DIRA TXALO ZAPARRADAK**

Txalo zaparrada etengabeak entzun ziren frontoian larunbatean. Ez pilotarietarik egindako tantoengatik, Ostadarren sail bakoitzeko kideei egindako aitortzengatik baizik. Elkartearen atal berrienetik hasi ziren sariak banatzen: Kirol Egokituta saileko arduradunek Maria Martinez saritu zuten, "atalaren alde egindako lan guztiagatik", ekitaldiko hizlari eta Ostadarreko kide Aitor Azkonobietak azaldu zuenez.

## Sail bakoitzeko kideei aitortza

Mendi saileko kideek Gonzalo Zabalak egindako azken balentria nabarmendu dute. Iazko azaroan Himalaya mendilerroko Ama Dablam (Nepalen dago, eta 6.812 metroko garaiera du) igo zuten. Hainbat gailur egin ditu herritarrek urteotan: Aconcagua, Kilimanjaro, Lenin Peak, Elbrus

eta beste hainbat. 2002. urtean hasi zen gailurrak bildumatzeko.

Gonzalo mendian hasi zenean haur txikiak edota jaioberriak ziren Beltzak errugbi eskolako 14 eta 16 urtez azpiko taldeko jokalariek. Hamabost urte geroago, denboraldi bikainak egin dituzte. 16 urtez azpiko Lavie ZRT-Beltzak taldeak Euskadiko txapelketa irabazi du, eta zazpigarren postua erdietsi du Espainiakoan. 14 urtez azpikoak, berriz, Gipuzkoako txapelketa izan dira, eta Euskadiko azpitxapelketa.

## Jokalaritza jatorrenak

Edozein diziplinatan ongi lehiatzea oso garrantzitsua da, baina are inportantzia gehiago dauka kirol-legez jokatzeko, eta balioak transmititzeko. Hori dela eta, Ostadarreko hainbat saileko jokalaritza jatorrenak saritzen dituzte urtero-urtero.

Areto-futboleko arduradunek saritu zituzten jokalariek hauek dira: Iñigo Jaka (3. nazional mailako Ostadar Antonio Aroztegia taldeko kapitaina), Javi Vecilla (Gipuzkoako 1go mailako Cecilia Kebab Lasarte Ostadarreko kapitaina), Alex Varela eta Oscar Lanuza (jubenil

**IA MILA HERRITAR ARITU DIRA AURTEN KIROLEAN OSTADAR SKT-REN HAMAR SAILETAN**

mailako jokalariek). Gorka Redondok banatu zituen sail horiek.

Saskibaloian, Endika Marrahi koordintzaileak talde bakoitzeko sari bana eman zuten, sei guztira. Kadete mailatik hasi eta seniorretaraino, banan banan atera ziren jokalaritza sarituek: Maialen Sevillano (Errendimenduko kadetea), Nerea Calvo (Partizipazioko kadetea), Uxue Balerdi eta Uxue Anabitarte (Errendimenduko juniorrak biak), Susi Sanz (Emakumeen 1go probintzial mailako seniorra) eta Iraitz Rodriguez (3. probintzial mailako senior gizonetako).

Eta, sariekin bukatzeko, futbola. Hamalau talde lehiatu dira aurten, inoiz baino gehiago. Talde bakoitzeko entrenatzaileek banatu zituzten jokalaritza jatorrenen sariak. Sarituen zerrenda luzea da: Iraitz Almagro eta Ander Ormazabal (alebinak); Unai Sorrondegi, Jon Nieto, Adam Sanchez eta Markel Arzallus (infantilak); Jon Ander Bermudez, Ibai Morales eta Pablo Hernandez (kadeteak); Iñigo Otaegi eta Beñat Loiarte (jubenilak); Saioa Perez, Joaquin Ramos eta Xabi Ugalde (erregionalak).

Saioa Perez erregionalak beste behin atera behar izan zuten kantzara handik gutxira. Joxe Belartietak Ostadar elkarteko kide eta entrenatzaile historikoak emakumezko jokalaritza onenaren saria eman du aurten, eta erabaki du Perezek merezi duela txapela. Merituak egin ditu horretarako: Gipuzkoa mailako ligetako gogile nagusia izan da.

## Ia mila kirolari

Ostadar SKTren arduradunak gustura daude aurtengo denboraldiarekin. "Ia mila herritar aritzen dira kirolean gure sailetan, eta hori 200.000 euroko aurrekontuarekin. Gure historiako kopuru altuenak dira", nabarmendu dute elkartearen aldizkari ofizialean. 34 kandela itzali ditu aurten Ostadarrek, eta etorkizunean kirola egiteko aukera ugari ematen segitzea dute helburu. Ahal dela, udalak Atsoabakarren egin nahi dituen kirol instalazioetan: "Futbola, errugbia eta atletismoa egiteko kirol gune horrek entrenatzeko baldintza hobek eskainiko dizkigu, eta gure kirolarietarik ez dituzte horren berandu bukatuko entrenamendu saioak".



**Adrian Garcia**

Gipuzkoako zinema elkarterik zaharrenetarikoa da Okendo Zinema Taldea. 1986. urtean sortu zuten, nahiz eta ibilbide luze horretan etenaldi eta gorabehera batzuk izan dituen. Urte horietan guztietan eginiko auzolana saritu dute Ostadar SKTren denboraldi amaierako ekitaldian. "Ilusio handiz hartu dugu aitortza hori. Ezusteko handia izan da". Laura Noguerasek eta Pilar Garcia urteak daramatzate elkartean. Herriko beste zinemazale amorratuekin batera, zinema komertzialetik harago kalitatezko pelikulak eskaintzen dituzte.

**Zer esan nahi du zuentzat Ostadarrek eginiko aitortza?**

**Laura Nogueras:** Ez dut uste gure lana saritzeko modukoa denik. Gustatzen zaigun gauza bat indartu eta bultzatu nahi dugu, eta horretan gabiltza. Beti herriko elkarrekin parte hartu dugu, eta zabalik egon gara elkarlanean aritzeko. Alde horretatik, uste dut auzolan saria egokia dela.

**Pili Garcia:** Bere garaian Okendo Zinema Taldeak jende asko mugitzen zuen. Orain, gure lana apalagoa da. Halere, gutaz oroitzeak ilusio handia egin dit. Egia da urte asko direla, eta elkarrearen ibilbideak merezi du.

**Aspaldikoa da Okendo Zinema Taldea. Zerk piztu zuen elkarrearen sorrera?**

**L.N.:** Zinemarekiko grina handia zuen kuadrilla batek sortu zuen. Proposamen bat egin zuten udalean, eta, ostegunero hasieran, eta igandetan gero umeentzako, pelikulak ematen hasi ziren.

**P.G.:** Tedoso zinema itxi zenean bukatu zen garai hori. Garai batean hiru zinema zeuden Lasarte-Orian. Etenaldiak izan ditu elkarrekin, lan handia eskatzen baitu, eta garai batzuetan jendea nekatu egin izan da.

**Lasarte-Oria Donostia ondoan dago. Urtero egiten dute han Zinemaldia, eta giro berezia sortu ohi da. Zer eragin izan du horrek elkartean?**

**L.N.:** Aitona zinemazalea nuen, eta klasikoak eta hari esker ikusi nituen. Baina zinema garaikideaz dakidan guztia Zinemaldian ikasi dut, hango pelikulak ikusita. Guretzako harrobi bat da, handik ateratzen ditugu gero urte osoan kulturetxean ematen ditugun pelikulak. Goi mailako zinemaldia da. Jendea ez da konturatzen zer nolako altxorra den.



Pili Garcia eta Laura Nogueras kideak, Ostadarrek banatutako sariarekin. TXINTXARRI

# "Bestela iritsiko ez lirakekeen pelikulak jartzen saiatzen gara"

**LAURA NOGUERAS ETA PILI GARCIA OKENDO ZINEMA TALDEKO KIDEAK**

Ostadarrek urtero banatzen duen Auzolan saria irabazi du taldeak. Zinema alternatiboa herritarrei eskaintzen hasi zen kluba orain dela hiru hamarkada

**P.G.:** Erreferentzia bat da, oso garrantzitsua. Horren gertu edukitzea sekulako luxua da. **Hiriburua eta merkataritza gune handiak gertu edukitzeak izango ditu ere eragin kaltegarriak zinemarentzako, ezta?**

**L.N.:** Oso zaila egiten zaigu zinema komertziala horren gertu edukitzea, ezin dugulako harekin lehiatu. Beste zinema klubetan egoera desberdina da. Beasainen haiek kudeatzen dute dena. Baita Gernikan ere. Baina haiek bete egiten dituzte aretoak. Zergatik?

Gernikan hori delako duten zinema bakarra, eta bestela Durangora edo Bilbora joan behar dutelako. Hor sortu duten giroa da garai batean Lasarte-Orian zegoena: ostiraleko plana da bokadilloa jatea, eta gero pelikula ikustea. Hori hemen egitea ezinezkoa da. **Halere, Zinema Okendo Taldeak eskaintzen dituen pelikulak eta merkataritza gune handietan ikus daitezkeenak desberdinak dira, ezta?**

**L.N.:** Bai. Baina zinemarekiko joera bat indartu da, eta oso eroso

egin du zinema komertziala ikustea. Gure pelikulak ez dira horrelakoak. Guri Internetek egin digu min asko. Pelikulak ikustera etortzen den jendearen batzabesteko adina 35-40 urte baino zaharragoa da. Ohiturak aldatu egin dira.

**P.G.:** Gazteak orain ez dira zinemara joaten, dena Internet bidez ikusten dute. Saiatu gara haiek erakartzen, gazteen artean arrakasta izan dituzten pelikulak jartzen. Baina ez dira etortzen. Batez ere, Interneten agerpenaz

geroztik, izugarri egin du behera sarrerak.

**Nola definituko zenukete Zinema Okendo Taldeak eskaintzen duen zinema? Zein motatako pelikulak eskaintzen dituzte?**

**L.N.:** Aberasgarria den zinema eskaintzen saiatzen gara. Kalitatezkoa. Noski, kalitatezko pelikula komertzialak ere badaude, baina guk ez dugu hori eskaintzen. Ikusteko zailak diren pelikulak jartzen ditugu, banaketa aldetik gurera iristeko zailtasunak dituztenak. Adibidez, Irango pelikulak, kalitatezkoak direnak. Aurten Oscar saria Irango pelikula batek irabazi du [*The Salesman*]. Horri eman nahi diogu bultzada bat; kalitatezkoa eta gutxiengo den zinemari.

**P.G.:** Proposamen bat egiten duten pelikulak gustatzen zaizkigu, sakontasun batean sartzen direnak. Mundua, pertsonak... hobeto ezagutzeko. Horrelako bidaia bat egiteko, murgiltzeko. **Zer nolako pisua du euskal zinemak zuen programazioan?**

**L.N.:** Oso garrantzitsua. Guretzako berebizikoa da, eta bultzada handia ematen diogu. Zuzendarien laguntza izaten dugu, gainera: Joxe Mari Goenaga etorri zen dokumentalak eta pelikulak aurkeztera (*Loreak* eta *Lucio*); Asier Altuna ere etorri zen *Amama*-ren emanaldira. Aukera dagoenean, beti eskaintzen dugu euskal zinema. *Igelak* eta *Gazta zati bat* ere eman genituen.

**Zein da zehazki elkarrekin egiten duen lana? Zein da udalarekiko duzuen harremana?**

**L.N.:** Gu programatzaileak gara. Bilerak egiten ditugu, data batzuk dauzkagu, eta pelikulak aukeratzen ditugu. Azkenean, zerrrenda bat egiten dugu, eta udaleko teknikariek egiten dute kontratazioa. Hau da, dirua udaletik ateratzen da. Gero haiek arduratzen dira sarreretat.

**P.G.:** Ona da udalarekiko harremana. Alde horretatik, pribilegiatuak gara, babestuak sentitzen garela. Oso polita da herriko jendea egotea zinema bultzatzen. Enpresa batek dena kudatuko balu, beste zinema mota bat sustatuko luke ziurrenik.

## "GAZTEAK ORAIN EZ DIRA ZINEMARA JOATEN, DENA INTERNET BIDEZ IKUSTEN DUTE"



# OSPAKIZUNAK ZABALETAN

## EGURALDIA EZ DA OZTOPO IZAN



Gozategiren doinuek alaitu zuten igande arratsalde goibela. TXINTXARRI



Igandeko Dantzari Txiki Eguna bikain bukatu zuten parte hartzaile guztiek. Ttiriki-Ttarrakako kideen doinuek laguntzarekin.



Antton Garinek hunkituta abestu zuen larunbatean, aitortza jaso eta gero. TXINTXARRI



Ikusgarria izan zen ZoZongo taldearen *Psycho-Clown* emanaldia. TXINTXARRI





tzarekin, arin-arina eta fandangoa dantzatu zituzten, eta kalejira erraldoia egin. TXINTXARRI



Emarri taldeko kideek 51 plaza t'erdi egin zituzten hogei minutuan, 550 kiloko harriarekin. TXINTXARRI

"Egun on, hau egun ederra, euria ari du, baina ederra da, plazetan; putzutik putzura, saltoka doazen ero batzuk gara". Horrela dio Gozategi taldearen *Egunon* abestiak. Igande arratsaldean eskaini zuen emanaldia Orioko taldeak, eta nahita aukeratu zuen kanta hori. Euria egin badu ere, ederra izan da asteburua Zabaletan. Hainbat ekintza egin zituzten.

Pertsona ugariaren lanari esker ospatzen dituzte jaiak urtero. Horietako bat da Antton Garin. Larunbat arratsaldean aitortza jaso zuen, 25 urteotan egindako guztiagatik. Bertsolarien saioa hasi aurretik laranja koloreko zapi berezia jarri zioten lepoan; antolatzaileek eta omenduak hunkituta abestu zuten gero. Goizean, berriz, IV. Sorgin Krosa jokatu zen: David Martin eta Anabel Elenok irabazi zuten.

Lerro gutxi eta aipatzeko ekintza asko: Kukukaren emanaldiak, Teresa sorginaren jaitziera, herri-kirolak, zikiro afaria, Txan magoaren trikimailuak, mus eta eskoba txapelketak, ostiral eta larunbateko kontzertu eta parrandak... eta aipatzeko falta direnak. Beste urte batez, Zabaletako festek ez dute hutsik egin. Motorrak berotzeko ere aproposa izan da: auzo hori izan da sorgintzen lehena, baina hemendik hiru aste barru herri osora zabalduko da, iristear baitaude San Pedro eta Sorgin jaiak.



Asteburuan osoan auzoan egon eta gero, Teresategira itzuli da Teresa sorgina. TXINTXARRI



# Jose Martijaren omenez, txapelketa larunbatean

Benjamin eta alebin mailako bederatzita taldek jokatu dute Jose Martijaren II. omenezkoa. 09:30ean hasiko da txapelketa eta arratsaldeko 19:00ak bitartean luzatuko da. Talde guztiek elkarren aurka jokatuko aukera izango dute

## Martin Vicioso

Jose Martijak urteetan zehar entrenatutako jokalariek egindako omenaldi hunkigarria izango da biharkoa. Benjamin mailako zortzi taldek txapelketa jokatu dute larunbatean zehar Michelin zelaian. Eguerdian, bestalde, lagunartean lehiatuko dira Ostadar SKT-ren eta SD Eibarren alebin mailako taldeak.

Lehiaketaren aurkezpenaren Martija anaiek entrenatutako jokalariei ohiek hitz egin zuten. "Sasoetan, Saustatxon edota Texas Lasartearran egindako lana" goraiatzeaz gain, edukitako taldeen argazkiek osatutako bideoa erakutsi zuten. Bertaratu ziren familiakideek gogoz eskertu zuten eskainitako oparia.

## Benjaminen txapelketa

Goizeko 09:30ean hasiko dute txapelketa, eta 12:30ak bitartean jokatu dira lehenengo faseko partidak. Bi multzotan banatu dituzte benjaminen taldeak. Alde batetik, Antiguoko, Vasconia, Eibar eta Texas Lasartearra arituko dira. Bestetik, Beti Ona, Koras, Sanse eta Billabona.

16:30ean berriro ekingo diote txapelketari, bigarren fasea hasiz. Talde bakoitzeko bi talde onenak finalerdietara sailkatuko dira, eta beste biak kontsolazio fasera.



Antolatzaileak Martijatarrekin. TXINTXARRI

Bi finalak 17:40ean eta 18:25ean jokatzea espero dute antolatzaileek. Partidak 30 minutukoak izango dira, zelai erdira, finalak izan ezik. Horiek 40 minutuko iraupena edukiko dute.

Eguerdian egingo diote omenaldia Jose Martijari, 12:20ean Michelingo zelaian. Ondoren, alebin mailako Ostadar SKT-rek eta SD Eibarrek jokatu dute lagunartekoa.

13:30ean talde guztiak abiatuko dira, txaranga baten laguntzaz, Sasoeta auzoan dauden elkarte

gastronomikoetan bazkaltzera. Jakinarazi dutenez, benjamin mailako talde guztiak gonbidatuak izango dira, baina alde zuzenetik jakitera eman beharko dute haien asistentzia.

Txapelketa formatua hartu du Jose Martijari egin dioten bigarren omenaldi honek. Etorkizunera begira, horrela jarraitu nahiko lukete, Lasarte-Oria Gipuzkoako futbol eskolen topaleku bihurtuz. Urte askotan martijatarrek herriko hurrekin egindako lanak jarraipena izango du ikasle ohien eskutik.



Ostadar SKTko jokalariei eta entrenatzaileak, garaipena ospatzen. TXINTXARRI

## Gipuzkoako Kopa irabazi dute lehenengo mailako kadeteek

Nagusi izan zen Ostadar SKT Zubietan, eta merezita irabazi du kopa, Mariño 3-1 mendean hartuta.

## Iñigo Gonzalez ZUBIETA

Zubietako Z4 zelaian une latzak sufritu ditu Ostadar SKTko berriki, Ohorezko Jubenilek Euskal Ligara igo ezin izan zutenean, batez ere. Larunbatean atera zuen arantza kirol klubak, lehenengo mailako kadeteek Gipuzkoako Kopa irabazi baitzuten. Mariñoren aurka jokatu zuten, eta herriko taldeko jokalariei guztiak urtebete gasteagoak izanda ere, merezimenduz altxa zuten garaikurra, 3-1 irabazita.

Mariñok hartu zuen agintea lehen minutuetan, baina urdin-beltzek sartu zuten partidako lehenengo gola, Jon Agirreren jaurtiketa bikain bati esker. 2-0koa sartzeaz egon zen Ostadar, baina atezainak ederki gelditu zuen Eneko Lanchasen penalti jaurtiketa. Eta nola diren gauzak: finala poltsikoan edukitzetik, berriro hutsetik hasiera pasa

zen Ostadar, Mariñok banakoa sartu baitzuen lehenengo zatien hondarrean. Jose Manuel Loiarte Gorri eta Manolo Elizalderen mutilek ez zituzten buruak jaitsi, ordea, eta bigarren zatian erabat nagusi izan ziren Zubietako Z4 zelaian. Markagailuan ere islatu zuten, bi gol gehiago sartuta: Iker Sarasola eta Andoni Fernandez izan ziren golegileak.

Partida bukatu eta gero gogotik ospatu zuten garaipena jokalariei, entrenatzaile eta Zubietara joandako zaleek.

## Balentria egitetik gertu

Erreginaren Kopatik at geratu da Reala, Bartzelonaren aurka 1-0 galdu eta gero. Txuri-urdinek ederki jokatu zuten ligako talde indartsuenetako baten aurka, baina ezin izan zuten finalerdietara sailkatu. Barbarak sartu zuen partiduko gol bakarra, 102. minutuan. Iraia Iparragirre herritarrek ez zuten jokatu.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### FUTBOLA

#### JOSE MARTIJAREN OMENEZKOA

Ostadar SKT, Texas Lasartearra, SD Eibar, Beti Ona, Billabona, Sanse, Koras, Vasconia eta Antiguoko taldeen benjamin eta alebinek txapelketa jokatuko dute  
Larunbata. 09:30etik aurrera. Michelin

### IGERIKETA

#### LASARTEKO XXVIII SARIA

Buruntzaldea IKTKo igerilari benjamin eta alebinek Lasarteko

Saria lehiatuko dute. Txikienek erakustaldia eskainiko dute lehenik.  
Larunbata. 09:45. M.Chourraut kiroldegia.

#### SAN MARCIAL SARIA

Buruntzaldea IKTKo igerilari infantil, junior eta absolutuek San Marcial saria lehiatuko dute  
Larunbata. 16:00. Azken Portu, Irun.

### PILOTA

#### ALEBINAK

Tolosa - Intza  
Ostirala. 19:30. Beotibar pilotalekua.  
Tolosa.

LAU T'ERDIKO TXAPELKETA, EKIALDEKO FASEA

Solano (Intza) - Lertxundi (Orio)  
Ostirala. 20:00. Michelin pilotalekua.

### TRITATLOIA

#### ZARAUZKO XXXI EDIZIOA

Zenbait herritarrek hartuko dute parte  
half distantziako Zarauzko triatioian  
Larunbata. 14:00. Zarautz.

### BTT

#### EUSKO BIKE CHALLENGE

Bost herritarrek izena eman dute Araban egingo den Eusko Bike Challenge frogan parte hartzeko.

Larunbata. 09:30. Kanpezu.

### ATLETISMOA

#### GIPUZKOAKO TXAPELKETA

LOKE taldeko infantil, kadete eta junior mailako atletak Gipuzkoako Txapelketa jokatu dute.

Larunbata eta igandea. Goiz eta arratsaldean. Donostian.

### TXIRRINDULARITZA

#### GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Buruntzapir Txirrindularitza Eskolako txirrindulari infantil, kadete eta juniorrak Lezon, Oñatin eta Anoetan lehiatuko dira, hurrenez

hurren. Kadeteek, halaber, Gipuzkoako erlojuaren kontrako txapelketa jokatu dute Bergaran. Larunbata eta igandea. Goiz eta arratsaldean. Lezon, Oñatin, Bergaran eta Anoetan.

### HERRI LASTERKETAK

#### KORRE MUSIC NIGHT

Hainbat herritarrek Donostiako Korre Music Night gaueko lasterketa musikatuan eman dute izena. hamar kilometroko ibilbidea burutuko dute hamabi musikagune zeharkatuz.  
Larunbata. 22:00. Donostian.



# Maria Eugi, txapeldun 100 eta 200 metroetan

Euskadiko Txapelketa bikaina egin zuen Atletico San Sebastian taldean aritzen den Maria Eugi lasarteoriatarrek, bi frogatan urrezko domina eskuratuz. LOKE taldeko Eneritz Bustok ere lan txukuna egin zuen, 100 metro hesidunetan brontzekoa irabaziz

## Martin Vicioso

Lasterketa bizietan maisutasunez moldatzen da Maria Eugi herritarra, eta beste behin erakutsi zuen pasa den asteburuko Euskadiko absolutu mailako Atletismo Txapelketan. 100 eta 200 metroetako lasterketetan onena izan zen, 12:16ko eta 25:18ko denborak eginez.

21 urteko gazteak denboraldi bikaina egin du Atletico San Sebastian taldean, eta Euskadiko aire libreko txapelketan borobildu du lana. Nagusitasunez irabazi zituen bi frogak, Berango Atletismo taldeko Jan Karla Perezen aurretik.

Bestalde, LOKE taldeko Eneritz Bustok egindako lana da aipatzekoa. 100 metro hesidunetan parte hartu zuen, eta brontzeko domina eskuratu zuen Teresa Errandonearen eta Maria Mujikaren atzetik. Marka txukuna ezarri zuten biek, hamalau segundutatik jaitsi baitzuten kronoa.

Hala ere, junior mailako txapeldun Eneritz Bustok lan bikaina egin zuen, 14:49 segundutan amaituz. Absolutu mailako Espainiako Txapelketan lehiatuko da Durangon erakutsitako mailari esker.

Urte askotan LOKE taldean aritutako Itoitz Rodriguezek ere



Maria (ezkerretik bigarrena) eta Nerea (eskuinetik lehena) Eugi lehian. ANA GARCIA

emaitza bikainak izan zituen Durangon. Urrea irabazi zuen 400 metrokoetan, Javier Mariscalen aurretik.

## Oro har, herritarren lan ona

Parte hartu zuten beste lasarteoriatarrek domina etxeraterik izan ez zuten arren, lan txukuna egin zuten.

LOKEko Ane Galardi podiumetik gertu ibili zen luzeera jautsian: bosgarren postuan amaitu zuen. Naroa Furundarenak eta Enara Gonzalezek seigarren

eta zazpigarren bukatu zuten froga berean. Galardik eta Furundarenak salto hirukoitzan ere parte hartu zuten. Laugarren eta zazpigarren geratu ziren, hurrenez hurren.

Yeray Veroniz lasarteoriatarrek ere podiumetik oso gertu amaitu zuen 100 metroko froga. 10:91 segundutan amaitu zuen finala, brontzeko domina eskuratu zuen Iker Aldamak baino bi segundu ehuneko motelago. Dena den, pozik egoteko bosgarren postuan amaitu zuen.

## Forma bikainean jarraitzen dute Buruntzaldea IKTko igerilariak

GIF sarian eta Udaberri Ligan lehiatu ziren igerilariak pasa den asteburuan, Donostian eta Andoainen

## Txintxarri

Denboraldi borobila egiten ari da Leire Martin, marka berri ugari ezarri eta dominak irabaziz. Larunbatean ere bikain lehiatu zen igerilari lasarteoriatarra Donostiako Paco Yoldi igerilekuan egin zen GIF sarian. Egindako froga guztien puntuen baturari esker, lehenengo postua eskuratu zuen. Haren ahizpa Ainhoa hirugarren izan zen, eta batera igo ziren podiumera.

Espainiako Txapelketan lehiatzeko txartela irabazi zuten biek. 50 eta 200 libre eta 200 bizkar frogetan aritzeko gutxieneko markak gainditu zituen Leirek. Azken horretan, 14 urtez azpikoen Euskadiko errekorra segundu erdian hobetuz, gainera. Ainhoa, bere aldetik, 400 estiloetako lasterketan parte hartuko du estatu mailako lehiaketan.



Leire eta Ainhoa Martin. BURUNTZALDEA IKT

Unai Irigorasek, Jon Ibarгойenek eta Paula Sevillanok ere lan txukuna egin zuten.

Beste taldekideak Udaberriko Ligako hirugarren jardunaldian lehiatu ziren, taldeko eta norbanakoen marka ugari hobetuta bidean.

## Herritar ugari lehiatuko dira Zarauzko XXI. Triatloian

Trinkoko Enaitz Ibarburu eta Asier Gorostegi lehiatuko dira, Ramon Altuna eta Maria Mendiberekin batera

## Txintxarri

Triatloi denboraldiko froga garrantzitsua da Zarauzkoa. Lau herritarrek eman dute izena larunbateko frogan: Asier Gorostegi eta Enaitz Ibarburu Trinko taldeko kideek, Ramon Altunak eta Maria Mendibek.

Getariatik abiatuko dira triatloilariak, Zarautz bitarteko 2,9 kilometroko tarte igerian eginez.

Bizikletan, berriz, 81 kilometroko bidea egin beharko dute. Meagas (bi aldiz), Orioko gaina eta Aiako paretara gainditu beharko dituzte.

Zarautz inguratzen duen zirkuito bati hiru buelta emanaz amaituko dute lasterketa.

## Mendi lasterketak

Triatloian ez ezik, mendi lasterketetan lehiatu dira pasa den asteburuan herriko

kirolariak. Herritar ugarik hartu zuen parte Ereñotzuko mendi lasterketan. Beñat Los Arcosek bosgarren postua eskuratu zuen, kronoa 1:11:44 orduko denboran geratu ostean.

Ruben Ruzafa garaileak herritarrek baino zazpi minutu gutxiago behar izan zituen hamabi kilometroko ibilbidea burutzeko.

Kanaria Uharteetan lehiatu zen, Bestalde, Jon Presa. Mendi maratoni erdia egin zuen herritarrek.

Hurrengo asteburuetan ere zenbait frogatan hartuko dute parte herritarrek. Horieta bat 'Onditx oroitz' Donostiako triatloi olinpikoa da. Trinko taldeko zenbait kidek parte hartuko dute hilaren 24an egingo den froga horretan. Igerian 1,5 kilometro, bizikletan 40 eta korrika hamar egin beharko dituzte.

## Errugbia Michelinen

Beltzak errugbi taldeak denboraldia itxi zuen joan den larunbatean Michelingo zelaian. Aitor Uranga kidea omendu zuten berriro ere hainbat ekintza eginez. Aurrena, harrobiko jokalariek euren gurasoen aurka jokatu zuten. Ondoren, Beltzak eta Lagunak eta Atletico San Sebastian taldeek neurtu zituzten indarrak. Bukatzeko, hirugarren denbora egin zuten frontoian.



TXINTXARRI



# Martin eta Eleno, garaile IV. Sorgin Krosean

David Martin eta Anabel Eleno herritarrek irabazi zuten iragan larunbatean Zabaleta auzoan jokaturako Sorgin Krosaren laugarren edizioa. Urtero legez, hainbat lasarteoriatar animatu ziren sei kilometroko ibilbidea egitera.

## Iñigo Gonzalez

Larunbat goizeko eguraldia ez zen onena izan Zabaleta auzoko ekitaldi gehienak egiteko. Sorgin Krosa izan zen salbuespenetako bat. Korrika egiteko baldintza txarrak ez ziren izan joan den larunbatekoak: giro freskoa, apenas haizerik ez, eta ia euririk ere ez ia. Laugarren edizioa izan da aurtengoa eta hainbat lasarteoriatar animatu ziren parte hartzera, baita inguruko herrietakoak ere.

Gizonezkoen kategorian hasi eta berehala egin zuen ihes David Martinek. Itzuliz itzuli beste lasterkarietako segundo-tartea handitu eta bakarrik helmugaratu zen, ikusleen txalo artean. 21 minutu eta 43 segundotan egin zuen sei kilometroko ibilbidea. Iñigo Gurrutxaga helmugaratu zen bigarren, eta Luis Miguel Garaiartabe hirugarren.

Emakumezkoen kategorian zirrargarriagoa izan zen, azkeneko metroetara arte aritu zirelako Anabel Eleno eta Pili Bodegas nor baino nor gehiago. Azkenean, Eleno iritsi zen lehenengo postuan helmugara; 26:13 minututan geratu zuen kronometroa. Esan bezala, Bodegasek egin zuen bigarren denbora onena, eta Maite Salazarrek osatu podiuma.



Ezker-eskuin: Gurrutxaga, Bodegas, Martin, Eleno, Salazar eta Garaiartabe. TXINTXARRI

Irudi bitxiak utzi zituen larunbateko lasterketak: parte-hartzaile batek baino gehiagok zakurrarekin batera egin zituen sei kilometroak. Antolatzaileek aipatu zuten, datorren urteko edizioan kanikross kategorian lehiatzeko aukera ere ematea pentsatuko dute. Adin-tarte guztietako lasterkariak aritu ziren Zabaleta auzoan barrena Sorgin Krosean.

Plazako anoa postuan indarrak berritu eta gero, kategorian bakoitzeko lehenengo sailkatuek sariak jaso zituzten.



David Martin. TXINTXARRI

## Iñigo Altuna, hirugarren Beasaingo Loinaz frogan

Jira Bira Grupo Eulen taldeko txirrindulariak mendiko saria ere irabazi zuen larunbatean egin zen lasterketan

### Martin Vicioso

Lehenengo urtea du Iñigo Altunak 23 urtez azpiko kategorian, eta pixkanaka bere maila ari da erakusten. Santikutz klasikoan mendiko saria irabazi zuen, eta maldetan trebea dela

frogatu zuen berriro asteburuan, Beasaingo Loinaz sarian.

Mendiko saria irabazteaz gain, hirugarren sailkatu zen helmugan. Caja Rural taldeko Jaime Suredak baino 11 segundu gehiago behar izan zituen lasarteoriatarak.

Mendian ez ezik, txirrindulari azkarra ere badela erakutsi zuen Altunak. Hiruko taldetxoan ailegatu zen helmugara, eta hirugarren postua borrokatzeko sprintean nagusitu zen.

Igandean, Pentekostes saria ere lehiatu zuen Jira Bira Grupo Eulen taldeko txirrindulariak. Aurreko eguneko esfortzuaren ondoren, ez zuen emaitza onik lortu ahal izan. Hala ere, lasterketa amaitu zuen Altunak, irabazleak baino zazpi minutu beranduago.



Taldeka zilarra irabazi zuen Maialen Chourrautek (ezkerrean). MAIALEN CHOURRAUT

## Europako txapelketa gazi-goza izan da Maialen Chourrautek

Zilarrezko domina irabazi du herritarrek taldekako frogan, Eslovenian; seigarren izan da bakarkakoan.

### Txintxarri

Ederki ekin zion asteburuari Maialen Chourrautek: taldekako K1 modalitatean zilarrezko domina kolporatu zuen, Irati Goikoetxea eta Marta Martinezekin batera. Joan den asteburuan Eslovenian jokatu zuten taldekako txapelketan Espainiako ordezkariak erdietsi zuen domina bakarra izan zen.

Igandean bakarka aritzea zegoen txapelketan olinpikoari. Finalerdietan seigarren denbora onena egin eta finalera sailkatu zen piraguista lasarteoriatarra. Ezin izan zuen duela bi urteko

emaitza errepikatu, eta azkeneko jaitsieran ere seigarren denbora onena egin zuen. Epaileek lau aldiz zigortu zuten Maialen Chourrautek, eta Corinna Kuhnle irabazleak baino 7,92 segundo gehiago behar izan zituen helmugara iristeko.

Stefanie Horn italiarrak eta Marie-Xelia Lafont frantsesak osatu zuten K1 modalitateko bakarkako podiuma.

Ander Elozegi piraguista irundarra, berriz, zazpigarren izan zen C1 kategorian. Alexander Slafskovsky eslovakiarrak irabazi zuen modalitate horretan.



TXINTXARRI

## Hasi dira udako zaldi lasterketak

Hainbat hilabete eta gero, joan den ostiralean berriro bete ziren hipodromoko harmailak. Zaldi lasterketen udako denboraldia hasi da eta turfzaleek ez zuten sasoiako lehenengo txapelketak zuzenean ikusteko aukera galdu. Gainera, doakoa izan zen sarrera, eta hala izaten jarraituko du ekaina bukatu bitartean.



## ZORION AGURRAK




**Maitane**  
Zorionak bihurri.  
Primeran pasa zure  
egunean. 9 muxu  
haundi etxekoan  
partez!



**Garazi**  
Zorionak printzesa!!!  
Bederatzi muxu,  
familikoan partetik  
Maite zaitugu!!!



**Naiara**  
Zorionak printzesa!!!  
Bederatzi muxu handi  
maitia, aiatxo eta  
amatxoaren partetik!!



**Ekain**  
Zorionak Ekain zure 4.  
urtebetetzean!



**Lucia**  
Zorionak "supergirl",  
9 urte planeta honetan  
jadanik. Muxu asko  
Aita, ama eta Lauraren  
partetik



**Ana**  
Zorionak, galisteña!  
Pintxopotean  
gonbidatzea tokatzen  
zaizu! Etxekoan  
partetik: Esteban, Lur  
eta Curro, noski!



**Mirentxu**  
Zorionak xomorro!!!  
Belarritik tiratzeko  
txangoa antolatu  
beharko dugu, ados  
jartzea kostatzen  
zaigunarekin.... lortzen  
badugu, kañak zure  
kontu!!!

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Txintxarriren bidez zoriontzeko:

**Internet**

Txintxarri.eus-en: [txintxarri.eus/zorionagurra](http://txintxarri.eus/zorionagurra) eta *Bidali zure zorion agurra* formularioa bete.

Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.

**Posta elektronikoa**

Mezua bidali [txintxarri@txintxarri.eus](mailto:txintxarri@txintxarri.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua. Ez ahaztu irudia atxikitzea.

**Bulegora**

Etor zaitetz Txintxarriko bulegora edo deitu 943 37 14 48 telefonora.

## SUDOKUA

		5	1				3	6
		8	6					1
6			9			5	2	4
5					9		6	
8	6			4			7	
	2	7		6	8			
3		2			6	4		7
	8	6	4			3		
		4			2		1	

## OHARRAK

**Lasarte-Oriako 2017ko danborradan parte hartzeko entseguak**

Aurtengo San Pedro Jaietan, Lasarte-Oriako danborradan atera nahi duten herritarrek, entseguak izango dituzte hilabete honetan. Astelehen eta asteazkenetan izango dira

hitzorduak, Sasoeta Ikastetxeko gimnasioan.

Ordutegiei dagokienean, bi txandatan izango dira entseguak; haur eta gazteentzako arratsaldeko 18:00etatik 19:00etara egingo dira; eta helduentzako, berriz, 20:00etatik 21:00etara.

**Koadrilen jaiak**

San Pedro jaiak ate joka dira, eta, ekainaren 28rako kuadrilentzako festa mundiala antolatu du Ttakun Kultur Elkarteak. Egun horretan, 13:30ean Okendotik Atsopakarrera kalejiran joango dira gazteak. Bertan, bazkari herrikoia egingo

dute, eta, bazkalostean, Ur-jolasak eta busti-blai! egingo dute.

Ospakizun egunean blusa eramane beharko dute gazteek, baina blusarik ez badute, ekainaren 14an (Sasoetako patioan) eta 15ean (Garaikoetxean), kamisetak tindatzeko hitzordua jarri dute, arratsaldeko 15:30etatik 17:00etara.

**Zikiro afaria**

Asteartetik aurrera, sanpedroetako Zikiro Afarirako txartelak erosi ahal izango dira 20 eurotan Jalgi tabernan eta Ttakun Kultur Elkarteak. Ekainaren 28an egingo da aurten, arratsaldeko 21:30ean. Menua honakoa da: zikiroa, postrea eta kopa.

## GUTUNA

**Hondakinen mahaia****IPAR HAIZEA**

Pasa berri den maiatzaren 15ean idatzi bat erregistratu genuen udaletxean, Hondakinen Mahaia presaz deitzea eskatuz, eta bertan Andoingo hondakinen bilketa sisteman egin beharreko hobekuntzak eta aldaketak planteatzen hastera deituz, birziklapen tasa oso baxuak baititugu egun (soilik %45,6 abenduan; azken datuak), eta hauek hobetu beharra daukagu, Gipuzkoako udalerrri gehienekin alderatuta atzean geratzen ari baikara.

Uste dugu borondatezko edukiontzia marroiaren (bosgarren edukiontzia edo organikoaren

edukiontzia ere deitua) eraginkortasunak goia jo duela eta arazoa hondakinak kontrolik eta mugarik gabe nahastea ahalbidetzen duen edukiontzia berdea dela. Gipuzkoako udalerrri askotan, urrutira joan gabe, edukiontzia berdea errefusarentzako (birziklatu ezin diren hondakinak) edukiontzia gris txipdun bategatik ordezkatzeko erabaki dute, bosgarren edukiontzia bidezko organikoaren bilketa etxe guztietara zabalduz (bere erabilera bolondresa ez izatea eta erabilera orokortuko izatea, alegia), eta emaitza aipagarriak lortuaz horrela.

Horregatik, eta 2014an Hondakinen Mahaia ados-

tutakoak kontuan hartuz (%60ko birziklapen tasa, konpostajea sustatu, edukiontzia marroia ezarri, sortzaile berezientzako bilketa berezia jartzea, ontzien erabilera murrizteko kanpaina burutu, errefusa gutxitu...) proposatzen dugu Gipuzkoako udalerrri askotan egindako esperientzia arrakastatsua kontuan izatea, esaterako Zumarraga (%74ko birziklapena, g o b e r n u a n P S E - E E ), Aretxabaleta (%80, EAJ-PNV), Elgeta (%81, EHBildu), Arrasate (%79, EAJ-PNV), Olaberria (%84, OEO), Zegama (%76, Zegama Lantzen) edota Beasainen (%77, EAJ-PNV) aurrera eramandakoak; non alderdi politiko guztien

oniritziarekin adostu zuten zaborraren edukiontzia berdea kentzea eta horren ordezkari edukiontzia gris txipdun oinarritutako sistema ezartzea, non herritar guztien betebeharrak den hondakinak modu egokian sailkatzea.

**Andoingo Hondakinen Mahaia**

Uste dugu, gainera, sistema planteatzerakoan kontuan hartu behar direla, besteren artean, Andoingo Hondakinen Mahaia berak finkatutako helburuak betetzea (%60); Tolosaldeko Mankomunitatearenak (%60tik beherako mailak ez ditu ontzat hartzen), eta Europak adostutako helburuak (derrigorrezkoak) 2020rako %50 eta 2030erako

%70 birziklatzea, honenbestez uste dugu planteatu beharko litzatekeela egungo eta etorkizuneko helburuak betetzeko.

Horregatik, uste dugu Andoingo hondakinen gairako irtenbide ezberdinak eztabaidatu beharko liratekeela, betiere aurrez aipatutako helburuak gainditzea ahalbidetzen badute.

Andoain jasangarriago eta garbiago baterantzko bidean uste dugu denok lagundu behar dugula. Bide horretan aurkituko dute Ipar Haizea, partehartzeko eta laguntzeko prest Andoain hondakinekin jasangarriago, garbiago eta arduratsua lortzeko norabidean.



## AZOKA TXIKIA

**2. LANA**  
202. ESKAERA  
Emakumea eskaintzen da adineko pertsonak edo umeak zaintzeko. Interna bezala ere lan egiteko prest 631184453  
Emakumea eskaintzen da adineko pertsonak edo umeak zaintzeko. Interna bezala ere lan egiteko prest 631655499  
Emakumea eskaintzen da adineko pertsoank zaintzeko. Asteburuetan, jaiegunetan zein gauetan lan egiteko prest. 606661048 / 943-404015  
Arreta soziosanitarioan tituludun emakumea eskaintzen da

adineko pertsonak zaintzeko, Lasarte-Orian eta goizez. 673381470  
Emakumea eskaintza da garbiketa lanak zein pertsona helduak zaintzeko. Astelehenetik ostiralera orduka edo interna gisa lan egiteko prest. 690146067

**3. BESTELAKOAK**  
101. SALDU  
Garaje marra alokatzen dit Donostian (Ondarretan) 645706658

Bi plazako garaje itxia alokatzen da Pablo Mutiozabalaren. 686674552  
Garaje marra alokatzen dut Atsobakarren, Golf plazan, Garaikoebea eskolaren parean. Autoarentzat edo motorarentzat egokia. Handia eta sarbide onarekin. 659 02 19 45  
Barça Futbol Taldeko kamiseta eta galtzak saltzen ditut. 673381470

## TELEFONOAK

**UDALAREN TELEFONOAK:**  
ERREGISTROA: 943 371 629  
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184  
KIROLDGIA: 943 376 182  
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943 376 181  
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179  
KIUB: 943 361 605  
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621  
MUNTTERRI AEK: 943 372 863  
**LARRIALDIKO TELEFONOAK:**  
OSASUN ZENTROA: 943 007 960  
DYA: 943 464 622  
GURUTZE GORRIA: 943 363 953  
UDALTZAINAK: 943 362 442  
ERTZAINZA: 943 288 888  
SOS DEIAK: 112


## JAIOTAKOAK

**Mikel Gorka Fernandez Acevedo.** Maiatzaren 30ean.  
**Eneko Goikoetxea De Miguel.** Ekainaren 2an.

## HILDAKOAK

**Maximo Santamaría Gonzalo.** Ekainaren 1ean.  
**Alberto Alvarez Lopez.** Ekainaren 6an.  
**Isidro Martin Lopez.** Ekainaren 7an.

## MANTTANGORRI HIRIBUSA



## Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:00	12:10	12:15	12:20
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

Kotxerak	Antxisu	Institutua	Antxisu
07:40*	07:45*	07:50*	07:55*

\*Eskola egunetan

## GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 2 ACHA-ORBEA  
Larunbata, 3 ORUE  
Igandea, 4 ORUE  
Astelehena, 5 ORUE  
Asteartea, 6 URBISTONDO  
Asteazkena, 7 LASA  
Osteguna, 8 GIL

**EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00**  
ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52  
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49  
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51  
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74  
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29  
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67  
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

**GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00**  
Echeveste Elosegui: Elkano Kalea 9, Hernani/ 943 55 20 87

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira. Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera ([www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com)).

## ESKELAK

### ESKELAK JARTZEKO: Txintxarri erredakzioan 943 37 14 48

- ▶ Hileta egunean eskela txintxarri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Txintxarri paperean 90€
- ▶ Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + txintxarri.eus-en: 90 €
- ▶ Eskela mota guztiak paperean: 80 €

Txintxarri: doan eta euskaraz Lasarte-Oriako etxe guztietan

txintxarri

[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)

**Argitaratzailea**  
Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
20160 LASARTE-ORIA  
G-20407557

**Erredakzioa**  
Iñigo Gonzalez, Maddi Noriega,  
Martin Vicioso, Lorena Lujanbio  
Adrian Garcia

**Publikitate**  
Arantxi Zulaika.

**Laguntzaileak**  
Unai Muñoa, Gorka Lasa,  
Ane Labaka, Mailu Arruti,  
Asier Odriozola, Maider Seguro,  
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,  
Edu Galardi

**Informatikoa**  
Xabier Amadoz

**Administratza**  
Nerea Garcariena

**PUBLIZITATEA**  
Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (106)  
[publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

**EGOITZA NAGUSIA**  
Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
[txintxarri@txintxarri.eus](mailto:txintxarri@txintxarri.eus)

**Inprimategia**  
Zeroa Multimedia, S.A.

**Lege Gordailua:** SS-513/94  
**ISSN:** 1134-0053  
**Tirada:** 7.800 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA  
UDALA

LAGUNTZAILEAK



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAIALA  
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza



Gipuzkoako Foru Aldundia



# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

## OSTIRALA 9

### LASARTE-ORIA Hitzaldia

Osasun asteko egitarauaren baitan, "Osteopatia bizimodu gisa" izenburudun hitzaldia entzun ahal izango da, Haritza Osteopatiaren eskutik. *Villa Mirentxu, 18:00etan.*

### USURBIL Ipuin kontaketa

Mattin marrazkilaria eta Ixabel Agirresarobe ipuin kontalariak "Irudipuinak" ikuskizuna eskainiko dute, zuzeneko marrazkiak ipuinekin uztartuz. Amaitzean, txokolatada egingo dute. *Irazu kaleko anfiteatroa, 17:00etan.*

### ASTIGARRAGA Musika

Norberto Almandoz musika eskolak antolatuta, XVII. Musika Eguna ospatuko dute. Herriko gune askotan kontzertuak egingo dituzte eskolako ikasleek. *Herriko gune ezberdinak 16:00etan.*

### HERNANI Azoka

Hernani Rugby Taldeak Garagardo Azoka antolatu du. Garagardo eta janari eskaintza zabala egongo da arratsaldetik aurrera. Liverpuull Unplugged taldeak kontzertua eskainiko du. Igandera arte luzatuko da azoka. *Atsegindegi, 18:00etan.*

### ORIO Musika

Ane Arruti bakarlarari zarauzarrak kontzertua eskainiko du. Bere kantuak egiteaz gain, zenbait euskal kanten bertsoak egingo ditu. Gonbita alde zurretik eskatu behar izango da, aretoaren aforoa mugatua delako. *Kultur etxea, 22:30etan.*

## LARUNBATA 10

### LASARTE-ORIA Hitzaldia

Elkarbizi elkarteak antolatuta, "Zerga iraultzaileari" buruzko hitzaldia eskainiko du Deustuko Unibertsitateko irakasle Izaskun Saez de La Fuentek. *Antonio Mercero, 11:00etan*



### LASARTE-ORIA Rocioko erromeria.

Semblante Andaluz elkarteak antolatuta, Rocioko erromeriarako egitarau mamitsua prestatu dute. Andaluziako musika, dantza eta gastronomiarekin gozatu ahal izango da asteburuan zehar. *Larunbata 10 eta igandea 11, Atsobakar, 12:00etatik aurrera.*

### LASARTE-ORIA Festa

Semblante Andaluz elkarteak antolatuta, Rocioko erromeria ospatuko dute. Eguerditik arratsalderako egitaraua prestatu dute. Musika, dantza, gastronomia eta festarako tartea egongo da. *Atsobakar parkea, 12:00etatik aurrera.*

### BILBO Mobilizazioa

Gure Esku Dago herri mugimenduak nazio mailako mobilizazioa deitu du, bertaratutakoek Euskadi plazatik Eliptika plaza bitartean galdera ikur erraldoia irudika dezaten. Herrietatik autobus zerbitzua antolatu dute tokian tokiko Gure Esku Dago-ren batzordeek *17:30ean, Bilbon.*

## IGANDEA 11

### LASARTE-ORIA Antzerkia

Kukukak antolatutako antzerki eta dantza hamabostaldiaren barnean, LH5 eta 6ko ikasleek lau antzezlan eskainiko dituzte goizez eta arratsaldean. *Manuel Lekuona, 09:45ean eta 19:00etan.*

### LASARTE-ORIA Festa

Semblante Andaluz elkarteak

antolatuta, Rocioko erromeria ospatuko dute. Eguerditik arratsalderako egitaraua prestatu dute. Musika, dantza, gastronomia eta festarako tartea egongo da. Goizean meza ospatuko dute. *Manuel Lekuona, 12:00etatik aurrera.*

## ASTELEHENA 12

### LASARTE-ORIA Antzerkia

Kukukak antolatutako antzerki eta dantza hamabostaldiaren barnean, LH5 eta 6ko ikasleek lau antzezlan eskainiko dituzte goizez eta arratsaldean. Arratsaldeko saioak euro bateko kostua du. *Manuel Lekuona, 09:45ean eta 19:00etan.*

## ASTEAZKENA 14

### LASARTE-ORIA Antzerkia eta dantza

Kukukak antolatutako antzerki eta dantza hamabostaldiaren barnean, DBHko ikasleek lau antzezlan eta bi dantza eskainiko dituzte goizez eta arratsaldean. Euro bateko sarrera ordaindu beharko da arratsaldeko saioan. *Manuel Lekuona, 10:30ean, 12:45ean eta 19:00etan.*

## ZINEMA

### ANDOAIN

Ostirala: 22:25, 00:55.  
Larunbata: 22:25, 00:55.  
Igandea: 22:25.

### BASTERO

**Marie Curie**  
Larunbata: 19:30, 22:00.  
Igandea: 19:30.  
Astelehena: 19:30, 22:00

### HERNANI

### BITERI

**Piratas del Caribe: La venganza de Salazar**  
Ostirala: 22:30,  
Larunbata: 19:30, 22:30.  
Igandea: 19:30.  
Astelehena: 16:30.

### USURBIL

### URBIL

**Alien: Covenant**

Ostirala: 22:25, 00:55.  
Larunbata: 22:25, 00:55.  
Igandea: 22:25.

### Capitán calzoncillos: su primer película

Ostirala: 16:00, 17:10, 18:20, 19:10, 20:20, 21:10.  
Larunbata: 16:00, 17:10, 18:20, 18:35, 19:10, 20:20, 21:10.  
Igandea: 16:00, 17:10, 18:20, 18:45, 19:10, 20:20.

### Déjame salir

Ostirala: 16:00, 20:15, 22:20, 00:35  
Larunbata: 20:15, 22:20, 00:35  
Igandea: 20:15,

22:20.

### El bebé jefazo

Ostirala: 18:10.  
Larunbata: 16:00, 18:10.  
Igandea: 16:00, 18:10.

### Guardianes de la galaxia: vol. 2

Ostirala: 18:35, 00:30.  
Larunbata: 00:30.  
Igandea: 00:30.

### La Momia

Ostirala: 15:45, 16:00, 17:00, 18:00, 19:20, 20:20, 22:00, 22:40, 00:20, 00:30, 01:00.  
Larunbata: 15:45, 16:00, 17:00, 18:00, 19:20, 20:20, 22:00, 22:40, 00:20, 00:30, 01:00.

Igandea: 15:45, 16:00, 17:00, 18:00, 19:20, 20:20, 22:00, 22:40.

### La promesa

Ostirala: 15:50, 21:35, 00:00.  
Larunbata: 15:50, 21:35, 00:00.  
Igandea: 15:50, 21:35.

### Piratas del Caribe: La venganza de Salazar

Ostirala: 16:50, 18:15, 19:25, 21:20, 22:00, 00:35.  
Larunbata: 16:50, 18:15, 19:25, 20:45, 22:00, 00:35.

Igandea: 16:50, 18:15, 19:25, 20:45, 22:00.



### LABURPENEA

### Marie Curie

**Zuz.:** Marie Noëlle. **Herr.:** Alemania (2016). **Gidoia:** Andrea Stoll, Marie Noëlle. **Aktoreak:** Karolina Gruszka, Ariele Worthalter, Charles Berling, Izabela Kuna, Malik Zidi. **Iraupena:** 95 minutu.

## Marie Curieren lana

Marie Curiek (Karolina Gruszka) eta Pierre Curiek (Charles Berling) osatutako bikoteak fisikako Nobel saria irabazi eta denbora gutxira, Pierre istripu latz batean hilko da. Alargun eta bi seme-alabekin, 30 urte inguruko Marie Curiek gizonen aginpean den esparru zientifikoa jarraituko du.

Parisko Sorbona Unibertsitatean katedra jaso zuen lehenengo emakumea izango da Curie. Ezkonduta dagoen zientifiko batekin maitemindu eta harekin abentura hasterakoan,

emazteak erlazioa publiko egitea erabakitzen du, Kimikako Nobel saria irabazi duela jakingo den momentu berberetan.

Egindako ikerketa lan mardularen ondorioz eskuratutako ospe eta arrakastarekin gozatu beharrean, arazo pertsonalek sortutako zurrunbilan nahastuko da Curie.

Andoingo Bastero kulturunean ikusi ahal izango da historiako zientifiko handienetakoa den Marie Curie-ren *biopic*-a, larunbatetik astelehenera.



KOMIKIA



**2 mō betaurreko:**  
Graduatuek erreflexuen aurkako leiarrekin  
+ eguzkitako graduatuak  
**97€**

[www.multioplicasgipuzkoa.com](http://www.multioplicasgipuzkoa.com)

ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA  
ERRETERIA • EIBAR • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.  
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Gure betaurreko guztiak bilduma berrietakoak dira

Kale Nagusia, 15  
Tel.: 943 37 74 55  
**LASARTE**

**MULTIÓPTICAS**  
lehena zerbitzu optikoetan

**USURBILGO  
LANBIDE  
ESKOLA**

CIFP USURBIL LHII

**943 36 46 00**

[www.lhusurbil.eus](http://www.lhusurbil.eus)

# AURREMATRIKULAZIO EPEA ZABALIK

## ekainaren 5etik 16ra

Fabrikazio mekanikoa

Elektrizitate-elektronika

Administrazioa

Produktzio zerbitzu eta mantenimendua

Energia eta ura

## Erdi eta goi mailako zikloak

### A, B eta D Ereduak